

IKASTAROETAKO ARAUDIA

1.- Ikastaroen izen-ematea

Izen ematea igerilekuko harreraren egingo da, dagokion izen emate orria beteta. Pertsona bakoitzak izen emate orri bakarra betetzeko aukera izango du.

Pertsona bakoitzak eskaera orri bakarra bete ahal izango du eta ikastaro bakarrean izena emateko aukera izango du.

Pertsona batek bi ikastarotan parte hartu nahi badu, bigarrena aukeratzeko aukera izango du behin izen ematea amaitu ondoren, beti ere, plazak libre dituen ikastaroren batean.

Ikastaroak aurrera atera ahal izateko, gutxieneko kopurua beharko da bakoitzean.

Ikasturte osoko ikastaroak (urria-ekaina): izen emateak irailaren erdialdean egingo dira.

Izena eman dutenak dauden plazak baino gehiago badira, zozketa bidez esleituko dira plaza horiek.

Plazarik gabe geratu direnak, zuzenean itxaron zerrendan geratuko dira. Hala ere, plazarik gabe geratzen denak aukera izango du beste talde batean izena emateko, beti ere taldea osatu arte, izen emate ordena errespetatuta.

Salbuespena: Baigerako bazkideei zuzendutako jardueretan, aurreko ikasturtean zeudenek izango dute lehentasuna.

Hiru hilabeteko ikastaroak (haurren igeriketa ikastaroak): hiruhileko bakoitzaren aurretik izen emate bat irekiko da. Lehengo hiruhilekoko ikastaroetan izena eman dutenak dauden plazak baino gehiago badira, zozketa bidez esleituko dira plaza horiek.

Plazarik gabe geratu direnak, zuzenean itxaron zerrendan geratuko dira. Horrela, lehenengo astean bajarik balego, zerrenda hauek hartuko lirateke kontuan. Hala ere, plazarik gabe geratzen denak aukera izango du beste talde batean izena emateko, beti ere taldea osatu arte, izen emate ordena errespetatuta.

Ikasturtean zehar igeriketa ikastaroetan parte hartzeko plaza mantenduko da, baina ebaluazio sistema hiruhilekoa izango da, hau da, hiruhileko bakoitzaren amaieran ikasleen ebaluazioa egingo dute monitoreek eta hurrengo mailara pasatzeko maila duten ala ez ebaluatuko da. Beraz, gerta daiteke ikastaroaren ordutegia aldatu behar izatea.

Gainontzekoen artean, plaza kopurua baino izen emate gehiago badaude, zozketa egingo da.

Udako ikastaroak (uztaila eta iraila): izen ematea maiatzean irekiko da. Aukera egongo da uztaileko, irailako edota bi hilabetetarako izena emateko.

Izena eman dutenak dauden plazak baino gehiago badira, zozketa bidez esleituko dira plaza horiek.

Plazarik gabe geratu direnak, zuzenean itxaron zerrendan geratuko dira. Hala ere, plazarik gabe geratzen denak aukera izango du beste talde batean izena emateko, beti ere taldea osatu arte, izen emate ordena errespetatuta. Horrez gain, udan zehar izen emateak irekita jarraituko du irailerako, izen emate ordenean eta taldea osatu arte.

2.- Kuotak eta ordainketa modua

Ikastaroaren ordainketa helbideratze bidez egingo da. Ikastaroen kuotak urtero Udal Osoko Bilkuran onartutako tasak izango dira.

Ikasturte osoko ikastaroak (urria-ekaina): ordainketa hilabeteroko kuoten bitartez egingo da, helbideratutako kontuan.

Alta hilaren 15etik aurrera egiten den kasuetan, kuotaren %50a ordaindu beharko da.

Hiru hilabeteko ikastaroak (haurren igeriketa ikastaroak): Kuotaren %100 ordaindu behar da izena ematerakoan. Ordainketa helbideratze bidez egingo da.

Udako ikastaroak (uztaila edota iraila): ordainketa hilabeteroko kuoten bitartez egingo da, helbideratutako kontuan.

3.- Itzulketak - Bajak

Ikasturte osoko ikastaroak: Ikastaroa hasi baino astebete lehenagora arteko epea egongo da baja eskatzeko. Behin ikastaroa hasita, hil horretako 25a baino lehen bete beharko da baja orria eta datorren hilabetetik aurrera tramitatuko da baja. Data horretatik aurrera, hurrengo hilabeteko kuota ere ordainduko da.

Baja mediku arrazoiengatik ematen den kasuetan, orria betetzen den momentuan tramitatuko da baja. Kasu horietan, baja hilaren 1etik 15era eskatu bada, hilabeteko kuotaren %50a itzuliko da. Baja hilaren 15etik aurrera eskatu bada, aldiz, hilabeteko kuota osoa ordaindu beharko da. Horretarako, mediku ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Itxaron zerrenda duten ikastaroetan, hilabete bateko saioen %50etara agertzen ez diren erabiltzaileei baja emango zaie eta itxaron zerrendan dagoen hurrengoari eskainiko zaio plaza hori. Salbuetsita daude mediku arrazoiengatik ikastarora etorri ezin dutenak, baina mediku ziurtagiria aurkeztu beharko dute horretarako.

3 hilabeteko Ikastaroak:

Ikastaroa hasi eta atebeteko epea egongo da baja emateko. Hortik aurrera, ez da bajarik onartuko, **mediku arrazoiengatik ez bada**. Kasu horretan, ziurtagiria aurkeztu beharko da eta dagokion kuotaren zati proportzionala ordaindu beharko da.

Udako ikastaroak (uztaila edota iraila): Ikastaroa hasi baino astebete lehenagora arteko epea izango dute baja eskatzeko. Behin ikastaroa hasita, ezingo da baja eman.

4.- Ikastaroak

- Espazio erabilera:
 - Uretako ikastaroak. Ikastaroak 4 kaleko igerilekuan egingo dira lehentasunez, bi kaletan. Kasu batzuetan, berriz, 6 kaleko igerilekua erabiliko da, ez dira inoiz bi kale baino gehiago erabiliko.
 - Fitness aretoko ikastaroak: ikastaro bakoitzaren ezaugarriak kontun hartuta, eta erabilpen aukeraren arabera programatuko dira.
 - Haurren igeriketa:
 - 6-12 hilabete: guraso batek sartzeko aukera izango du.
 - 2-3 urte: egokitzen epe bat egongo da. Lehenengo 2 astetan, guraso batek igerilekura sartzeko aukera izango du. Behin epea pasata, haurra bakarrik egongo da ikastaroan.
 - 4-13 urte: haurrak bakarrik sartuko dira ikastarora.
- Aldagelak: Umeekin aldagelan laguntzera datozen pertsonak ezingo dira inola ere bainu gunera sartu, horretarako baimenduta dauden ikastarotakoak izan ezik.
- Adina:
 - Haurren igeriketa: 6hilabetetatik hasi eta 13 urtera bitarteko eskaintza dago.
 - Aretoko jarduerak: 16 urtetik aurrera.
 - Salbuespena: 14 urtetik aurrerakoek ere parte hartzeko aukera izango dute, beti ere, guraso edo tutorearekin batera izena ematen badu.